

PERTSON ADINDUEN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA

IRUÑEKO DEKLARAZIOA

Pertsona aninduak, primerako ondarea

Aiton-amonen eskubideen deklarazioa:

- Osasunarekin eta bizi kalitatearekin bizitzeko eskubidea, ikuspuntu orokor batetik ulertuta, elementu kognitiboak, sentikorrak, sozialak eta parte hartzaileak kontuan hartuz, beti pertsona adinduen identitatea eta duintasuna babestuz.
- Bizitza publikoan, sozial eta politikoan aktiboki parte hartzeko eskubidea, indibidualki edo elkar lanean, zahartze aktiboaren bidez kalteberatasun eta hauskortasun, desgaitasun eta dependentzia egoerak sahiestuz.
- Bizitza publikoko zerbitzu eta aktibitatez gozatzeko eskubidea, beste adineko pertsonekin sozializazio aberatsa sustatzeko.
- Bakoitzak bere bizitzeko modua aukeratzeko, aisialdia izateko eta maitatzen dituen senideekin disfrutatzeko eskubidea izatea, eta ahal bada, bere ohiko ingurunean.
- Boluntariora jardueretan aktiboki parte hartzeko eskubidea, non bere esperientzia pertsonal eta profesionala partekatzeko eta bere ezagutzak, printzipioak eta baloreak transmititzeko aukera izango duten.
- Sektore pribatu eta publikoan erabateko integrazioa izateko eskubidea, adinarekin lotutako aurreiritziak alde batera utzita, diskriminazio egoeren kausa baitira, sozial, kultural, osasun eta lan arloan.
- Gaitasun fisiko eta kognitiboak kaltetuak daudenean, modua, lekua eta zainduko duten pertsonak aukeratzeko eskubidea eta zainketa paliatiboak jasotzeko aukera izatea beharrezkoa denean.
- Aurretiazko borondateen dokumentua idazteko eskubidea izatea, orainaren egonezinak lasaitzeko eta amaiera egokia ziurtatzeko protagonistendako, familiako senideak, profesionalak ondoan izanik duintasuna momentu latzetan mantentzeko.
- Gizartean zahartzaroari buruz ikuspuntu positiboa transmititzeko eskubidea, normalean ez baita irudi hori transmititzen komunikabideetan.
- Pertsonak jasotzen dituzten zainketak eta zerbitzuak printzipio bioetikoak ziurtatu behar dituzte, bere duintasuna eta intimitatea guztiz errespetatuz.
- Erabaki ekonomikoak hartzeko eskubidea izatea. dependentzia egoeran izatekotan zerbitzuetaz gozatu ahal izateko, eta bereziki pobrezia egoeran dauden haientzako.
- Baliabide eta zerbitzu mapa bat zabaltzeko eskubidea; hiritik at dependentzia egoeran dauden pertsonendako zerbitzuak hurbilduz, bere ingurunetik ez ateratzeko.

- Estrategia berriak inplementatuz, zentroen asistentzia eta dependentzia egoeran dauden pertsonen atentzioa hobetzeko eskubidea (laguntza bere etxean, eguneko zentroak, ospitalak eta persona adinduen egoitzak).
- Erabakiak modu multidisziplinari batean hartzeko eskubidea (arkitektotniko, teknologiko, sozial eta osasuna) pertsonen zahartzea bere etxean sustatzeko hainbat zerbitzu eskainiz: komunitatea, auzoteria eta agente lokalak.
- Geriatria arloan espezializatuta dagoen asistentzia jasotzeko eskubidea izatea (ospitalean eta anbulatorioan), diziplina anitza, integrala, kalitatezkoa eta pertsona beran arreta jartzen duena, eta ez gaixotasunetan, Geriatria eta Gerontologia arloan espezializatu diren profesionalen bidez.
- Pertsona adinduekin harremanetan dauden profesionalak geriatria eta gerontologian prestakunta egokia jasotzeko eskubidea izatea, eta profesionalen kopurua gizartearen beharretara egokitzea.
- Gaixoaren sendatzea bilatzeko eta bizikidetzaren familiarra eta soziala bultzatzeko, gizartean gaixotasun neurodegeneratiboei (dementia, esate baterako) eta prozesu kronikoei buruz informazioa zabaltzeko eskubidea.
- Administrazio publikoak eta gizartea aktibitateak eta programak aurrera eramateko eskubidea, eskusio, isolamendu eta bakardade egoerak ekiditzeko.

Iruñea, 2016 urriaren 1a